

1. TURISMO AKTIBOA

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Aisialdi, kirol eta abentura-turismorako programak eskaintzen dituzten turismo-ekintza osagarriak.

MERKATU-DATUAK

Euskal Autonomia Erkidegoan turismoak BPGren eta lanpostu guztien %4 inguru sortzen du. Azken urteotan arlo honen bilakaera ona izan da eta 1997 eta 1999 artean bakarrik turista-kopurua %36 gehitu zen. EAEk estatuko turisten %2,5 hartzen du; Gipuzkoa, lurralde gisa, eta hiriburuak, beste landa-herri batzuen aurrean, dira turista-kopuru handiena erakartzen dutenak. Turisten %72 estatutik datoz eta %14 EAEtik bertatik. Turista bakoitzeko batez besteko gastua oso handia da, egunean 20.000 pezeta baino gehiago (%80 ostatuan eta jan-edanean). Txangozalearen gastua, ordea, batez beste 8.000 pezetakoa da egunean.

Modalitateen arabera, negozio, biltzar eta azoka edo ferien inguruko turismoa guztizkoaren bi herenekoa da ia, eta heren bat bakarrik da opor eta aisialdiko turismoa. Oro har, turismo aktiboaren eskaintza oso berria da Espainian: enpresa espezializatuen %70 baino gehiagok hamar urte baino gutxiagoko esperientzia du. Eta datu horiek errepikatu egiten dira EAEn. 1998an, turismoko gidaliburu profesionalaren arabera, turismo aktiboko 21 enpresa zeuden EAEn. Datu hau 1996koa baino txikiagoa zen, eskaria ez delako beti behar bezain garrantzitsua talde eta enpresa egonkorra mantentzeko. Bizkaia zen urte horretan enpresa-kopuru handiena zuen lurraldea arlo honetan.

Hala ere, estatuan sektore honentzat egindako azterketen arabera, ondorengo hiru urteetarako %5 eta 10 inguruko hazkunde eutsiak aurreikusten ziren urtero. EAEn hazkunde horiek gainditu egin dira, eta gaur egun 13 enpresa dira turismo aktiboa eskaintzen dutenak Araban, 28 Bizkaian eta 34 Gipuzkoan. EAE da lekurik egokienetakoa sektore honen garapenerako: instalazio asko ditu era guztietako kirolak egiteko, hipika, golfa, ur-kirolak, edo kirolik arriskutsuenak (eskalada, arroilen jaitsiera, puenting, piraguismoa, etab. Gainera, natur paraje ederrak ditu kirol horietarako, natur parke asko, biosferako erreserbak edo natur erreserbak.

Bestalde, turismo-mota hau bat dator EAEko turistaren profilarekin. Jarduera hauek eskatzen dituzten turista gehienak gazteak dira, adin ertainekoak, erdi- edo goi-mailako ikasketadunak, eta errenta-maila onarekin. EAEko turistaren profila gaztea da, 40 urte baino gutxiagokoa, ikasketa-maila handikoa eta diru-sarrera dezentarekin.

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

□ *Zerbitzua*

Kirol eta aisialdirako jarduerak natur ingurunean, arrisku- eta abentura-kirolak barne.

□ *Sustapena*

Gaur egun, sustapena destinoan bertan egiten da, alegia, turista bertara etorri ondoren. Ohiko sistema hotelekin eta turismo-operadoreekin hitzarmenak egitea da, eta txartelak kokagunean bertan saltzea. Taldeengana (ikastetxe, haur-kanpamendu, elkarte, enpresa —sari-bidaia— eta ekitaldien azpi-kontrataziorako enpresetara) jotzea komeni da, partikularrak lortzea neketsuagoa baita, errentagarritasun txikiagoa dute eta hauen eskaria ere ez da hain jarraitua. Turismo aktiboan eskaintza ezagutarazteko eta bezeroak lortzeko erarik onena batek besteari gomendatzea da eta baliabide posible guztiak erabiltzea (publizitatea postontzietan banatzea, jaietan iragarkiak jartzea, publikitatea abentura-aldizkarietan, Internet...).

Plan Operatiboa

□ *Instalazioak*

Ekitazioak edo aire-jarduerak bezalako zerbitzuek bakarrik eskatzen dituzte instalazio espezifikoak. Jarduerarik gehienak aire zabalean egiten dira eta beraz ez dute inbertsio handirik eskatzen instalazio berezietan.

□ *Ekipamendua*

Ez da komeni inbertsio handiak egitea bulego-material eta informatika-tresnerian, benetako lantokia natur ingurunea izango baita. Baina zerbitzuak eskaintzeko beharrezko materiala erosi edo alokatzeko inbertsio handia behar izango balitz —eta hori jardueraren arabera dago: bizikletak, belomareak, mendiko tresneria osagarria, etab.— ekipamendu eta materiala saltzen duten enpresak dira negozio hauen hornitzaileak. Garrantzitsua da, segurtasun-arrazoiengatik, tresneria egoera on-onean izatea beti, eta urtero fakturazioaren %15-20 berriro inbertitu beharko da ekipamenduan.

Giza baliabideen plana

Aireko eta uretako jardueretarako, titulazio berezia duten langileak behar dira. Lehorreko kirolen kasuan, ekitazioa edo alpinismoa bezalako kasuetan bakarrik. Dena den, garrantzitsua da monitore edo begirale tituludunak izatea. Kontuan izanda eskaintza hau sasoikoa izaten dela, azpi-kontratazioa gomendatzen da, eta horretarako aisialdiko begirale eta kirol-teknikarien (rafting-irakasleen, mendiko kirol-espezialisten...) poltsa handia edukitzea komeni da, denboraldi mugatuetan horiengana jotzeko.

Inbertsio-plana

Negoioa abian jarri aurretik inbertsio-plana egitea komeni da eta finantzaketa-iturriak zehaztea. Gainera, inbertsioa neurri handi batean zertu beharreko jardueren arabera izango da. Adibidez, mendizaletasun-jarduerak eta kanpalekuak antolatzena bideratutako enpresa batek, ekintzaileaz gain soldatako langile bat duenak, hasteko gutxienez 30.000 €ko kapitala behar du (eraketa-gastuak 3.300 € lokalaren errenta 1. hilab. eta fidantza 1.100 € altzariak eta ordenagailua: 1.800 € jarduerak egiteko materiala 18.500 €), 5. urtetik aurrera lor daitekeelarik oreka-puntua.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

Administrazio-izapideak

EAE: Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es>
<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1>

Enpresa bat sortzeko informazio osoa

<http://www.creaciondempresas.com/>

Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

- *Profesional-talde ona*

Kirol-monitore eta begirale ongi prestatuen taldea izatea da gakoak, bai jarduera bera ahal den segurtasunik handienaz praktikatzeko, bai turistari zerbitzu ona emateko (hizkuntzak jakitea, bertako kultura ezagutzea, etab.).

- *Espezializazioa eta dibertsifikatzea*

Dibertsifikatzea beharrezkoa da arriskuak gutxitzeko, eta zerbitzuen aukera zabalduz sarrera-kopurua gehitu ahal izango duzu. Bestalde, sektoreak espezializaziora jotzen du, lehiakorragoa izateko aukera ematen baitu.

□ *Talde berriak*

Merkatua zabaldu egin daiteke eta kirol-aisialdiko zerbitzu hauek talde berriei —azoka eta biltzarren inguruko turismoari, enpresa-turismoari (sari-bidaia) — eskaini, inguruan bizi direnak ahaztu gabe: haur eta gaztetxoentzako programak, udako kanpalekuak antolatuz.

□ *Iradokizun batzuk*

- Langile-kopuru malgua (zenbait zerbitzuren azpi-kontratazioa denboraldi betean).
- Alokatu edo saldu kirol-gaiak, oroigarri-argazkiak...
- Aurkeztu administrazioek deitutako lehiaketetara abentura-kirolak antolatzeko
- Eman prestakuntza-ikastaroak monitore eta begiraleak prestatzeko, edo segurtasun-teknikei buruzkoak...

HELBIDE INTERESGARRIAK

ASETUR. Asociación Española de turismo rural (Landa Turismoko Espainiako Elkarte)

<http://www.ecoturismorural.com>

FECC: FEDERACION ESPAÑOLA DE CAMPING Y CARAVANING (ESPAINIAKO CAMPING ETA CARAVANING ELKARTEA)

<http://www.usuarios.lycos.es/jmrsocio/fecc.html>

INSTITUTO PARA LA CALIDAD TURISTICA ESPAÑOLA (ESPAINIAKO TURISMO KALITATERAKO INSTITUTUA)

<http://www.ictc.es>

CONSORCIO EUROPEO DE TECNOLOGIAS TURISTICAS (CETT). TURISMO TEKNOLOGIEN EUROPAKO PARTZUERGOA

<http://www.cett.es>

Azokak/Biltzarrak

TURISPORT. Landa-turismo, kirol eta garapen Erakusketa

<http://www.feira-galicia.com/feira/turisport/index.html>

TURISMO ETA OSTALARITZAKO ENPRESA-URTEKARIA

<http://www.efc.eol.es/ih/>